

IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA SARE SOZIALAK

0.- SARRERA.

Dokumentu honetan arlokako saioetarako oinarrizko informazio bat jaso dugu. Zehazki honako atalak azaltzen dira:

1. Arloak edo arloek hizkuntzaren ikuspegitik duten garrantziari buruzko balorazioa.
2. Arloko hizkuntza egoerari buruzko hainbat adierazle eta balorazio (4. puntuari informazio hau garatuago dago, nahi duenarentzat)
3. Arloan garatu diren edo planteatu diren egitasmo nagusien zerrenda eta horien balorazioa.
- 4.- Arloko hizkuntza egoerari buruzko adierazleen azalpen xeheagoa dakarren atala. (**Sakondu nahi duenarentzat**)

1.- ARLOEN GARRANTZIA.

Ikerketa guztiek adierazten dute urtez urte goraka doala era guztietako pantailekin dugun harremana. Pantailak dira eduki-hornitzaile nagusiak eta baita harremantzeko bide nagusiak ere. Hori hala izanda, hizkuntza-elikaduran eta erabileran duen eragina ikaragarria da.

2.- ADIERAZLE NAGUSIAK.

ADIERAZLEA	DATUAK	ONDORIOA
IKUS ENTZUNEZKOAK ETA SARE SOZIALAK	UEMAk ikus-entzunezkoei buruzko galdetegi bat pasatu zien 2022. urtean LHko 4. mailatik 6 batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei.	Txatean eta zuzeneko harremanetan erabiltzen duten hizkuntzaren artean ez dago alde nabarmenik. Telebista eta sare sozialetan gaztelaniaz kontsumitzen dituzte edukiak nabarmen, are gehiago, DBHko eta batxilergoko ikasleek.

3.- JARDUERAK, BALORAZIOAK. Bideratu diren edo bideratzea aurreikusi zen egitasmoak.

EUSKARA ZERBITZUAREN BALORAZIOA			
Arloak eta egitasmoak	Indarguneak	Hobetzekoak	Balorazioak
<p>8. Hedabideak eta teknologia berriak</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskal wikipedia Bergarako edukiz hornitzeko lan-taldea osatu. Sare sozialetan murgilduta dauden bergarrak edukiak euskaraz sortzera bideratu. Goienaren urteko jarduna diruz laguntzeko hitzarmena bideratu. Galdegazte programa Mundu digitalean euskara sustatzea: auzolan digitala, ZTB... 	<ul style="list-style-type: none"> Wikipedia hornitzeko talde txiki bat martxan dago. Mundu digitalean euskara sustatzeko auzolan digitala antolatu dugu bi urtez kasu bakoitzean 80 bat lagunek parte hartuaz. Bailara mailan Goienarekin bultzatutako Galde-gazte programak bilakaera positiboa izan du. 	<ul style="list-style-type: none"> Sare sozialetan erabilera bultzatzeko egitasmorik ez da bideratu. 	<ul style="list-style-type: none"> Orokorrean teknologikoki euskara bultzatzea.

4.- DIAGNOSIKO INFORMAZIO ZEHATZAGOA

7.- IKUSENTZUNEZKOAK ETA SARE SOZIALAK.

UEMAk ikus-entzunezkoek buruzko galdetegi bat pasatu zien 2022. urtean LHko 4. mailatik Batxilergora bitarteko ikasleei. Komeni da aipatzea garai hartan ez zegoela PRIMERAN plataforma, ez dakigun arren zenbat ikusten duten plataforma horretako edukia.

a) Telebista eta plataformetan ikusten dituzten **telesail eta marrazki bizidunen hizkuntza:**

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingelese	Ez du ikusten
LH	10,1	79,7	1,8	5,1
DBH-Batxi	6,8	73	10,4	3,6

b) Entzuten duten **musika:**

	Euskaraz / Batez ere euskaraz	Gaztelaniaz / Batez ere gaztelaniaz	Berdin euskaraz edo besteetan	Beti edo batez ere beste hizkuntzatan
LH	13,8	27	35	23,5
DBH-Batxi	4	50	16,9	29,1

c) **Bideo-jokoak:**

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingelesa edo beste	Batere ez
LH	6,5	68,7	33,2	14,3
DBH-Batxi	0,7	51,4	14,4	33,5

d) **Sare sozialak:**

- **Ikusten dutena**

LH							
	Batez ere eusk.	Batez ere gazt.	Berdintsu eusk. edo gazt.	Ingel.	Berdintsu eusk. edo ingelesez	Berdintsu gazt. edo ingelesez	Ez du erabiltzen
Youtube	7,4	52,1	19,4	2,8	1,8	12,4	4,1
Twitch	0,9	18,4	1,4	1,4	0,5	1,8	75,6
Tiktok	2,8	35,9	6,0	1,8	0	8,3	45,2

DBH-BATXI							
	Batez ere eusk.	Batez ere gazt.	Berdintsu eusk. edo gazt.	Ingel.	Berdintsu eusk. edo ingelesez	Berdintsu gazt. edo ingel.	Ez du erabiltzen
Youtube	1,8	53,2	3,2	6,5	1,1	26,3	7,9
Twitch	0	27,7	0,7	0,4	0	7,9	63,3
Tiktok	1,4	41,1	3,2	4,0	1,1	29,5	18,7

- **Sortzen dutena:**

	LH				DBH-BATXI			
	Batez ere eusk.	Batez ere gazt.	Berdintsu eusk. edo gazt.	Ez du ezer igotzen	Batez ere eusk.	Batez ere gazt.	Berdintsu eusk. edo gazt.	Ez du ezer igotzen
Twich	2,3	12,0	1,4	82	0,4	29,1	1,4	63,3
Tiktok	0,5	19,4	2,8	73,3	0,7	13,3	0,7	81,3
Instagram	2,3	5	2,3	89,9	5,4	32,7	14,7	42,8

- **Txateko hizkuntza:** DBHko eta Batxilergoko ikasleei galdetu zitzaien zein hizkuntzatan hitz egiten duten eta zein hizkuntzatan txateatzen duten.

	Etxekoekin euskaraz	Lagunekin euskaraz
Zuzenean	52,2	38,2
Txatean	48,0	39,6